



XVIII. SEBASTIANE SARIAREN IRABAZLEA. EPAIMAHAIAREN AKTA

GEHITUk, Euskal Herriko lesbiana, gay transexual et bisexualen elkarteak eta bere izenean Sebastiane Sariaren Epaimahaia osatzen duten Igor Blanco, Joaquín Garrido, Joseba Errekalde, Juanjo Arin, Lander Bergés eta Nicolás Subiránnek, erabaki du **XVIII. SEBASTIANE** saria,

Robin Campillo zuzendariaren

"120 TAUPADA MINUTUKO /120 BATTEMENTS PAR MINUTE (2017) filmari ematea honako arrazoi hauek dira-eta:

Gayen eta HIESAren oroitzapena gizarte osoarentzat berreskuratzeaz gain balore gisa berreskuratzen dituelako konpromisoa, bidegabekeriaren aurkako borroka, ausardia, norberak bere burua gainditzea eta alaitasuna. Eta, aldi berean, intimitateari eta maitasunari buruz hitz egiten duelako, etiketak apurtzen dituen indar horri buruz, alegia.

Ikusgaitasun historikoa ematen diolako laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetako gazteek egin zuten borrokari, hau da, gaixotasuna gainditzearen aldeko, elkar hartzearen aldeko eta gazte haiek babestu eta zaindu behar zituzten botereen eta gizartearen aurka kontzientziatzearen aldeko borrokari. Konpromiso horretan bizitzak salbatu baitzituzten.

Robin Campillok eta bere taldeak frogatu dutelako maila tekniko, narratibo, plastiko eta ideologiko handiko zinema eginez publiko guztiengana irits daitekeela.

↘ Aldarrikapena bistaratzen dute boterearen eta indiferentziaren aurka estigmatizatutako gay eta gaixoen marjinalitateak. Baina Campillok ez du ahantzi nahi emakumeen rol funtsezko eta grinatsua, ezta drogazaleena, prostituituena, hemofilikoena eta beren seme-alaben aldeko borrokan hain zeregin garrantzitsuak duten amena ere.

↘ Filmak erritmo bizia hartzen du, eztabaida politiko eta sozial sakon eta biziak aldarrikapen-ekintza deigarri eta ederrekin tartekatuz, betiere kultura homosexualean hain berebizikoak diren jaia, dantza eta sexua ahantzi gabe.

↘ Robin Campillok eta Philippe Mangeot-ek ez diotelako uko egin beren gidoian amodiozko istorio eder bat sorrerako unetik bertatik kontatzeari. Eta gay-bikote baten intimitatea eta maitasuna, inposatutako konbentzionalismorik gabe eta zineman gutxitan ikusten den errealismoz, erakustera ausartu direlako.

Horren guztiaren bidez erakusten da maitasuna sortzen dela film zoragarri honetan flotatzen duten hauts-molekula guztien bidez, eta belaunaldi berriei deiadar egiten zaie GIBaren eta hiesaren aurrean guardia jaitz ez dezaten, berriro ere egiten ari diren bezala, gizartearen eta boterearen indiferentziaren aurrean.

18. *Sebastiane Sariaren epaimahaiak erabaki du aipamen berezia egitea Ivana Mladenovic zuzendariaren **Soldatii. Poveste din Ferentari (Soldiers. Story from Ferentari)** filmari, ikusezintasun bikoitza pairatzen duen eta bere kontraesanekin denok bakarrik uzten dugun gutxiengoak, alegia, ijitoa eta homosexuala, ikusgai egiteagatik*





Kolon Pasealekua 50, — 20.002 Donostia - San Sebastián

info@gehitu.org

Tel./Fax: 943 468 516

www.gehitu.org

InfAsis-Informazioa eta Laguntza
Información y Asistencia
943 45 17 22



www.premiosebastiane.com

info@premiosebastiane.com

